Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2037

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 12koa, Ingurumen sailburuordearena, Euskadiko Autonomia Erkidegoan sustatzen ari diren zenbait jarduerei dagokien ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu diren proiektuak jendaurrean jartzen dituena.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zoruaren poluzioa ekiditea da, eta hau posible ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babesteko.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezarritakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaiak, ustiaketak edo lekualdaketek, eta baita funtsezko aldaketek ere, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumeneko baimen bateratuaren helburua araua bete behar duten instalazioek bere xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea da, hain zuen, baimena ematerakoan parte hartu behar duten Herri Administrazioen lankidetza bermatuko duen eta hiritarren administrazio beharrak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Ebazpen honen eranskinean agertzen diren enpresek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari ingurumen baimen bateratua eskatu diote Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak araututakoari jarraituz Euskadiko Autonomia Erkidegoan sustatzen diren ebazpen honen eranskinean agertzen diren jarduerei dagokien ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu diren proiektuak jendaurrean jarri beharra dago.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

2037

RESOLUCIÓN de 12 de marzo de 2009, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se acuerda someter a información pública varios proyectos promovidos para la obtención de la autorización ambiental integrada en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Resultando que la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, tiene por objeto evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrados de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

Resultando que en aplicación de lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1, resultando que la finalidad de la autorización ambiental integrada es establecer todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones sometidas a ella, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares.

Resultando que las empresas relacionadas en el anexo de la presente Resolución han solicitado ante la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco el otorgamiento de autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación.

Considerando que de conformidad con lo previsto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación procede acordar la apertura de un periodo de información pública de los proyectos promovidos para la obtención de la autorización ambiental integrada en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco relacionados en el anexo de la presente Resolución.

Vistos la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Decreto 340/2005,

Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta oro har eta bereziki aplikagarri den beste legedia ikusita, hurrengoa

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Ingurumenaren baimen bateratua lortzeko sustatutako eranskinean agertzen diren proiektuak jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan bidezko iritzitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Iritzitako arrazoibideak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea, 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz).

3. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko proiektuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan egongo dira eskuragarri (Donostia kalea, 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz) eta aipatutako saileko Lurralde Bulegoetan.

Era berean, adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako proiektuak dagokien udaletara bidaliko dira horiek erakusteko jendaurrean jartzeko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 12a.

Ingurumen sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, y demás normativa de general y especial aplicación,

RESUELVO:

Artículo 1.– Someter al trámite de información pública, por un periodo de 30 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, los proyectos promovidos para la obtención de la autorización ambiental integrada relacionados en el anexo en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimen oportunas.

Artículo 2.– Las alegaciones se presentarán ante la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco (calle Donostia-San Sebastián, 1, segundo piso, Vitoria-Gasteiz).

Artículo 3.– A efectos de cumplimentar lo previsto en el artículo anterior, los proyectos se encontrarán disponibles en la sede de la Dirección de Calidad Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco (calle Donostia-San Sebastián, 1, segundo piso, Vitoria-Gasteiz) y en las Oficinas Territoriales del citado Departamento.

Asimismo, con el fin de facilitar el acceso de los ciudadanos a la documentación referida, los proyectos relacionados en el anexo se remitirán a los respectivos Ayuntamientos para su exposición durante el periodo de información pública.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de marzo de 2009.

El Viceconsejero de Medio Ambiente,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA / *ANEJO I*

Araba/*Álava*		
Instalazioa/*Instalacion*	Jarduera nagusia *Actividad principal*	Udalerria *Municipio*
ATUSA empresarial S.L.U.	Fundizio piezen transformazioa eta fabrikazioa *Fabricación y transformación de piezas de fundición*	Agurain

Bizkaia		
Instalazioa/*Instalacion*	Jarduera nagusia *Actividad principal*	Udalerria *Municipio*
Fundiciones Elorrio, S.L.	Burdin galdaketa *Fundición de hierro*	Elorrio
Servicios Ecológicos Acitain, s.l.	Olio iragazkien birziklapena *Reciclaje de filtros de aceite*	Mallabia
Garbiker	Hondakin ez arriskutsuen zabortegi kontrolatuko kudeaketa *Gestión del vertedero controlado de residuos no peligrosos*	Berriz
Fundiguel s.a.	Burdin gris eta nodularren galdaketa *Fundición de hierro gris y nodular*	Iurreta

Gipuzkoa		
Instalazioa/*Instalación*	Jarduera nagusia *Actividad principal*	Udalerria *Municipio*
Servicios Ecológicos Acitain, s.l.	Olio iragazkien birziklapena *Reciclaje de filtros de aceite*	Eibar
Willet Cincuenta, S.L.	Gainazal metalikodun piezen zinkeztapena *Cincados en piezas de superficies metálicas*	Andoain